

Bereterretxeren Kantorea

Autor: Rodríguez León, Janire (Licenciado en Filología Vasca, Profesor de Euskara en Educación Secundaria).

Público: Profesores de Euskara. **Materia:** Euskara eta Literatura. **Idioma:** Euskera.

Título: Bereterretxeren Kantorea.

Resumen

Bizi den herri orok sortzen du Literatura, bere pozak eta penak adierazteko, liburu bidezko transmisioa oso gauza berria bada ere. Horren adibide dugu Euskal literaturan, ahozko literaturak izan duen garrantzia. Ahozko literatura guztiz herrikoa da, herrian bertan sortua eta garatua, eta, horregatik, festa giroa eta folklorea du oinarri. Horretaz gain, alderdi pedagogikoa ere badu. Euskaraz dugun kanturik zahar bezain ederrenetako bat dugu aztergai dugun Bereterretxeren Kantorea. Lekuonaren hitzetan, XV. mendeko balada epikoa da. Zuberoan kantatzen da tradizioz eta Larraineko semea zen Bereterretxeren atxilotze eta heriotza modu sarkor eta hunkigarrian deskribatzen du.

Palabras clave: Literatura, Euskal Literatura, Ahozko Literatura, Bereterretxe, Baladak.

Title: Bereterretxeren Kantorea.

Abstract

The medieval Bereterretxe ballad or «kantore» is probably the best known throughout the Basque Country. Versions of it have been recorded by singers and are available on records, but its success may also be put down to the dramatism of the subject and the quality of the text. Handed down orally from generation to generation, this composition tells the story of one of many episodes of the fight between rival clans. The crime that is denounced in the ballad took place between 1434 and 1449, and was ordered by the Count of Lerin.

Keywords: Literature, Basque Literature, Oral Literature, Bereterretxe, Ballads.

Recibido 2017-12-27; Aceptado 2018-01-05; Publicado 2018-01-25; Código PD: 091087

1. SARRERA

Literatura... zer da Literatura? Beti erantzun berriak asmatzen ibiltzen garen galdera eternal horietakoa dirudi honek ere, pertsonak adina erantzun dituen.

Bizi den herri orok sortzen du Literatura, bere pozak eta penak adierazteko, liburu bidezko transmisioa oso gauza berria bada ere. Inprimegiaren aurreko Literatura horren agerpen bakan batzuk baizik ez zaizkigu iritsi, erdal kroniken barruko osagarri gisa gehienetan. Baina aletxo horiek poesia sakon eta aberats baten berri ematen digute.

Horren adibide dugu Euskal literaturan, ahozko literaturak izan duen garrantzia. Ahozko literatura guztiz herrikoa da, herrian bertan sortua eta garatua, eta horregatik festa giroa eta folklorea du oinarri. Horretaz gain, alderdi pedagogikoa ere badu; izan ere, gauzak irakasteko erabiltzen zuten, kantuez eta koplez baliaturik.

Literatura-mota honetan bat-batekotasuna eta kantua ezinbestekoak dira. Laburbilduz, memorian gordetzeko literatura da: herrikoa, pedagogikoa eta festa giroan gozatzekoa.

Ahozko literaturaren figura azpimarragarriak erretrauak eta baladak dira. Azken hauek abeslariak edo musikariak ozen irakurtzen zituzten, goi-mailakoak entretenitzeko helburuarekin, hala nola, nobleak eta burgesak. Dena den, baladen ospea eta onarpena maila umilagokoen artean zabaltzen hasi zen, eta juglareek abesten zituzten balentriak, amodio istorioak eta herria hunki zezaketen bestelako gertakariak.

Euskaraz dugun kanturik zahar bezain ederrenetako bat dugu. Lekuonaren hitzetan, XV. mendeko balada epikoa da. Zuberoan kantatzen da tradizioz eta Larraineko semea zen Bereterretxeren atxilotze eta heriotza modu sarkor eta hunkigarrian deskribatzen du.

2. AUKERATUTAKO BALADAREN NONDIK NORAKOAK:

Balada honen nondik norakoak azaltzeko, Jean de Jurgain-en *La Tradition au Pays basque* liburuan eta Gavel-en *Un chant historique du Pays Basque: Berterretsen kantoria (La chanson de Berterretche)* liburuan oinarritu gara:

Jaurgainek, historia azterketa bat egiten du kanta honi buruz; aipatzen diren gizakiak nortzuk izan ziren, alegia. Gavel, berriz, aipatzen diren gertaerak argitzen ahalegintzen da. Bi ikerketa horien laburpena emango dugu hemen.

Hiltzailea *Luis de Beaumont* omen da; *conde de Lerín, barón de Guiche y de Curton*, eta *condestable de Navarra* izan zen, eta Mauleko jauna ere bai 1434-1449 urte bitartean. Bitarte horretan gertatuko zen, beraz, Berterretxen heriotza.

Urte haietan *Luxe* eta *Granmont*-eko etxeen arteko borrokak Iparraldeko Euskal Herria odolez gorritu zuten. *Luis de Beaumont* delako hori *Luxe*ko jaunaren aldekoa zen, beraren ahaide izanik.

Berterretx, “jaon kontiari ehun behi beren zezena ondotik” eskaintzen baitizkio, ondasunez ongi zegoena izango zen, eta beharbada *Granmont*-eko jaunaren aldekoa. Kondeak horregatik begitan hartu eta hilko ote zuen pentsatzen du Jaurgainek.

Ahotik ahora datorrenez, Berterretx hori Larrainekoa zen, eta hori bat dator kantaren zenbait zehetasunekin.

Bazko gauean, edo aurrekoan eta ondokoan, kondea Berterretxen etxera doa. Baita preso hartu eta eraman ere.

Larrainetik Maulerako bide zaharra hartu zuten. Bide hori Andozeko ibarretik barrena zihoan, ibaiaren ezkerretik Ligraino; eta hemen mendirantz hartu eta Ezpeldoiko bide gurutzera igotzen zen.

Berterretx nola hil zuten ez digu kantak esaten; baina bai toki horretan izan zela.

Ezpeldoi horretan hiru etxe omen ziren Gavel-en denboran. Bere ustez, bakarra izango zen garai hartan: Ezpeldoipe. Etxe honetakoak ez ziren ezertaz ohartu hurrengo egunera arte. Hurrengo goizean, bertako alaba Margaritak aurkitu zuen gorputza.

Berterretxen ama, Marisantz, bere semea zeramatela ikusi zuenean, anaiarengana joan zen laguntza eske. Anai hori Lakarri-Buztanobiko etxeko jauna zen. Arunzkoan, Bostmendieta deitzen den tokitik igaro beharra zuekan Marisantz gaixo horrek.

Anaiak, Maulera joan eta kondeari semearengatik galdetzeko esaten dio. Marisantzek hala egiten du, eta orduantxe ikasten beraren hil- berria.

Gavel-en iritzi, azken bertsoaren esanahia hauxe da: Ezpeldoikoak hiru dozena hator zikindu zituztela, Berterretxen odola txukatu nahirik.

Ezpeldoi horretan bai omen da, gaur ere, estela bat, orain bostehun urte baino gehiago han gertatu zen heriotzaren oroitarria izan daitekeena. Alde batetik gorputz bat ikusten omen da, Berterretxena beharbada. Horren gainean IHS eta MA hizkiak. Baita marrazki borobil bat arrasto oker bat ere. Hauek, M. Colas-en iritzirako, eguzkia eta ilgora dira. Harriaren beste aldetik, berriz, gurutze bat; eta behean bi uztai, beren geziekin. Arma horiekin hilko zuten beharbada Berterretx.

3. BALADAREN ALDAERAK

- ◆ **I. aldaera:** Sallaberry, J. D. J., *Chants populaires du Pays Basque*, Baiona, 1870. Oharretan honako argibide jakingarri hauek ematen ditu, frantsesez, noski.
- ◆ **II. aldaera:** Jaurgain, J., *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* idazlanean, (*La Tradition au Pays basque* liburuan, Paris, 1899). Jean de Jaurgain jaunak, Sallaberry-k bezalaxe eskeintzen du balada, aldaketa bakarra sarturik: *Berterretx* idazten du.
- ◆ **III. aldaera:** H. Gavel: *Un chant historique du Pays Basque: Berterretsen kantoria* (*La Chanson de Berterretche*) Baiona, 1924. Bertsoak Sallaberry-k bezalaxe ditu, aldaketa batzuekin (geroxeago aipatzen ditugu).
- ◆ **IV. aldaera:** R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco* kantutegia, 393 zenbakian, 491. orrialdean, lau bertso agertzen ditu, 3, 4, 5 eta 6., aldaketa bakarrarekin: 3/3: eia so ginezan leihoti.
- ◆ **V. aldaera:** Rodney Gallop-ek, bere *Collectanea Vasca: VI, Quelques airs de Sallaberry notés a nouveau* idazlanean (*Gure herria* aldizkaria, Baiona, 1931, 353. orrialdean), kanta honen lehenengo bertsoa dakar, aurretik honela esanez.
- ◆ **VI. aldaera:** Luis Dassance jauna zenaren paperetan beste aldaera bat aurkitu da. Bi kopia dira, biak eskuz idatziak.

Kopia batek izenburu hau du: *Bereterretx Larrañarenak*. Larrain herrikoa baitzan, lehen esan dugunez, Bereterretx gizarajoa.

Besteak izenbururik ez du. Baina saihets batean hitz hau irakurtzen da: *Chambra*. Izen horretako norbaiti bertsoren batzuk bildu zizkiola uste da L. Dassance jaunak; eta hau horietako bat izango da.

4. ALDAERA GARRANTZITSUENEN KONPARAKETA

	<i>“Chants populaires du Pays Basque”</i> Sallaberry, 1870	<i>“Kantu khantorea”</i> kanta	<i>“Un chant historique du Pays Basque”, H. Gavel, 1924</i>
1	-Ez <u>gamtamberak</u> ezürrik	-Ez <u>gamtanberak</u> ezürrik	-Ez <u>kanaberak</u> ezurrik (Dg.)
2	-----	-----	-----
3	- <u>Berterretchek</u> oheti -neskatuari <u>estiki</u> : -Abil, eta so' ginezan ageri denez gizonik	- <u>Bereterretxek</u> oheti Neskatuari <u>eztiki</u> : -Abil, eta so egin ezan gizonik denez ageri?	-----
4	- <u>hirur</u> dozena <u>bazabilzala</u> <u>leiho</u> batetik <u>bestera</u> .	- <u>Hiru</u> dozena bazabiltzala <u>bortha</u> batetik <u>bestila</u>	- <u>borta</u> batetik <u>bestera</u> (Sal.) - leiho batetik bestera (Ir.)
5	- <u>Berterretchek</u> leihoti - <u>Jaun</u> Kuntiarri goraintzi;	- <u>Bereterretxek</u> leihoti - <u>Jaun</u> Kuntiarri goraintzi:	-----
6	-Jaon Kuntiak berhala - <u>Berterretch</u> , aigü borthala, <u>itzüliren</u> hiz berhala.	-Jaon Kuntiak berhala, - <u>Bereterrex</u> , aigü borthala: <u>ützüliren</u> hiz berhala.	-----

7	-bizi denak <u>ohit</u> ükhenen dü <u>Bazko biharamena</u>	-bizi denak <u>orhoit</u> ükhenen dü <u>Bazko-</u> <u>gaiherdi ondua!</u>	- <u>Bazko-gaiherdi ondua!</u> (Sal.) -bizi denak <u>ohart uken beza;</u> (Ir.) - <u>Bazko-bezpera-arratsa</u> (At.)
8	-----	-Buneta erori lürrera	-----
9	-----	-----	-----
10	- <u>Mari-Santzen</u> lasterra - <u>Bost-mendietan</u> behera! -Bi <u>belhañez herrestan</u> sarthü da <u>Lakharri-</u> <u>Büstanobila.</u>	- <u>Marisantzen</u> lasterra -Bostmendietan behera! -Lakharri <u>Büztanobian</u> sarthü da bi <u>belhaiñak</u> <u>herresta.</u>	-Bi <u>belañez herresta</u> sartu da; Lakharri <u>Buztanobira</u> (Sal) -Lakharri-Buztanobila heltu da; bi beleñak herresta;(Ir.)
11	- <u>Büztanobi</u> gaztia, -Hitzaz hunik <u>ezpalimbada,</u> ene semia juan da!	- <u>Bustanobi</u> gaztia, -Hitzaz hunik <u>ez</u> <u>balimbada,</u> ene semia juan da.	-hitzaz <u>hoberik ezpalimbada</u> (Dg.)
12	-Arreba, ago <u>ichilik</u> -Hire semia bizi <u>bada,</u> <u>balimbada,</u> mentüraz <u>Mauliala da.</u>	-Arreba, ago <u>ixilik!</u> -Hire semia bizi <u>bada,</u> ene semia <u>juan da.</u>	-hire semia bizi <u>ba-da</u> (Ir.) - <u>Mauliala</u> dun <u>juanik</u> (Sal.) - <u>galdu duk ene semia</u> (Dg.)
13	- <u>Mari-Santzen</u> lasterra - <u>Jaon kuntiaren</u> borthala! -Ai! Ei! Eta <u>Jaona,</u> non	- <u>Marisantzen</u> lasterra - <u>Jaon</u> <u>Kuntiaren</u> borthala!	-----

	düzie ene seme galanta!	-Ai, ei, eta <u>jauna</u> , non düzie ene seme galanta?	
14	- <u>Berterretchez</u> besterik?	- <u>Bereterretxez</u> besterik?	-----
15	-Ezpeldoiko <u>jentia</u> -Hila haiñ <u>hüllan</u> ükhen eta deüsere etzakienak!	-Ezpeldoiko <u>jentiak</u> -Hila haiñ <u>hüllan</u> ükhen-eta deüsere etzakienak!	-Ezpeldoiko <u>jentia</u> (Ir.) -Hila hukan-eta hañ hulan deüsere etzakitena (Ir.) - <u>hila bontan uken eta</u> : (Dg.)
16	-Margarita deitzen <u>da</u> : -Berterretchen odoloetik <u>ahürkaz</u> biltzen ari da.	-Margarita deitzen <u>da</u> : -Berterretchen odoloetik <u>ahürka</u> biltzen ari da.	-Margarita deitzen <u>dena</u> . (Sal.) - <u>ahurka</u> biltzen ari da (Ir.) - <u>ahurretara</u> biltzen ari da; (Dg.)
17	-Ala <u>bükhata</u> ederra! -Berterretchen athorretarik hirur <u>dozena</u> <u>ümen da</u> .	-Ala <u>bukhata</u> ederra! -Bereterretxen athorretarik hirur <u>dozena ümen da</u> .	-ala <u>buketa</u> ederra <u>da</u> .(Dg.) -hirur <u>dozena badira</u> .(Ir.) ¹²⁷¹²⁸ - <u>hogeï dozen han ba-da</u> (At.)

¹²⁷ Oharra: Hiru aldakien artean, puntuazioan ezberdintasun ugari dago

* H. Gavelek aldaki ezberdinak batu zituen: Sallaberry-k bezalaxe (Sal.), Irurin batutakoa (Ir.), Atarratzen batutakoa (At.) eta Donibane Garazin batutakoa (Dg.).

Bibliografía

Liburuak:

- AZKUE, R. M., 1990 *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia [orig. 1922]
- GAVEL, H., *Un chant historique du Pays Basque: Berterretsen kantoria (La Chanson de Berterretche)*, Baiona, 1924
- IZAGIRRE, K. eta ELIZEGI, Xabier Mendiguren, *Euskal Literaturaren Antologia*, Elkarlanean, Donostia, 1998
- JAURGAIN, J., *Quelques légendes poétiques du Pays Basque* idazlana, (*La Tradition au Pays Basque* liburua)
- JUARISTI, J., *Euskal baladen lorea*, Madrid, Visor, 1989
- KANTU, KANTA, KHANTORE liburua.
- LAKARRA, J. eta al., *Euskal baladaren: azterketa eta antologia* (2 tomo), 1983.
- GALLOP, R., *Collectanea Vasca: VI*, "Quelques airs de Sallaberry notés a nouveau" idazlana (*Gure herria* aldizkaria), Baiona, 1931
- SALLABERRY, D.J.D., *Chants populaires du Pays Basque*, Baiona, 1870
- ZAVALA, A., *Euskal Erromantzeak* liburua, Oiartzun (Gipuzkoa): Sendoa Argitaldaria, 1998 (Geure laguna den **Gotzon Garate maitagarriak utzita**)

Interneteko orrialdeak:

- EGAN aldizkariko artikulua bat: "Berterretxen kantuz oharpen bat"
Helbidea: <http://andima.armiarma.com/egan/egan39/iruegan390005.htm>
- Berterretxeren kantorearen pastoralari buruzko informazioa
Helbidea: <http://www.nontzeberri.com/eszena/eszber2.asp?idberria=458>